

# “SALBATORE”KO“ ERMITA

por D. MANUEL DE LECUONA

«Salbatoreko» Ermita, etzegon Errenteria'n, Oyartzun'en baizik. Bañan ain zegon bion muga-mugan, eta muga, berriz, Errenteri-kaletik ain alde, denbora batean Salbatore-egunean (ots, Azenziotan) jayago egiten zan Errenteria'n, Oyartzun'en baño. Au ez dakigu geuron begiz ikusita, zaharragoai entzunda baizik. Naiko gauza zaharra bait-zan guzti ori. Bi karlista-gerrate bitartekoa, alegia.

Eta zer zuan jakingarri «Salbatoreko» Ermitak?

Inguru ontako beste zenbait Ermitak baño geyago, nola-nai ere.

• • •

Eta lendabizi, izena. «Salbatore» izena, latin garbi-garbia da. Eta latin garbia danez, Euskerak antziña-antziña beretzako artua. Nola-nai ere, oraindik romantzeak sortzeko zeuden garayan. Wisi-got garayan? baliteke. Lenago? baliteke ere.

Beste izen bat ere ba'da gure inguru ontako Euskeran, Salbatore bezain latin-garbi-kutsukoa: *Santi-spiritus*. Bai bait-zan Oyartzun'en Elizatxo bat izen ontakoa. Ala nola baita, nappar-lurrean *Trinitate* deritzan beste bat ere. Iru izen oyeak antziñatasun aundi samarra ematen bait-diotte gure inguru ontako kristautasunari.

Orra, beraz, gure Salbatore'k duan gauza jakingarri bat.

• • •

Beste bat, Ermitaren lekua. Edozeñek daki nun dauden Salbatore zana-ren pareta zaharrak. Lartzabal-gañean, burnibide-gañean, antxe. Guk pareta zaharrak ezagutu genituan, larrez estaliak; eta baita ikustera joan ere joan izan giñan, an lurrean-edo zerbait arkitu-zurri. Gaur ez al-da an pareta zaharrak ere, zerbait izandako señalear apal batzuek baizik.

• • •

Leku orrek, Salbatorez gañera ba'zuan beste izen-geigarri bat ere. *Agerre* edo *Agirre*. Papera zaharretan «Agerre»ko Ermita» esaten zayo; *Ermita de Aguerre*, edo-ta *San Salvador de Aguirre*. Inguru artan bait-dago baserri bat *Agerre* izenekoa; eta iñoiz baita bat baño geyago ere. Gain ark guztiak zuan nunnbait izen ori.

Orain, beste gauzatxo bat, *Agerre* edo *Agirre* izen oni buruz. Izen au *agerri*-tik datorrela (gaur *ageri* esaten bait-degu, bañan iñoiz bitara esan oi-zan, *ageri* ta *agerri*); eta beti ere «ikus-leku» esan nai duala, «begira-leku»; erderaz *observatorio* esango litzakena, *punto de mira*, *La Guardia*, *La Garde*.

Eta ala da, izan ere; nik dakidalarik, Andoañen ba'da *Agerre* bat, eta olaxe dago, gure Salbatore bezelaxe, kaxko polit batean, bide baten gain-gañean. Alaxe berean daukat gogoan *Olaberria*'ko *Agerre* ere: bide-gañean eta ikuspegi luzea dagon leku garai batean dagola.

Eta Oyartzun'en bertan ere antxen dago *Oyar-agirre* Oyartzun'go ibar guztia Errenteria'raño ageri dan kasko bat. (Orain izen au *Ollarriarre* bihurturik dagola, ezik; bañan paperetan beti ere *Oyar-agirre* edo *Ollar-agirre* azaltzen bait-da; Urnieta'n *Oyan-une*, *Ollaluma* bihurturik dagon bezela). Eta, testigu bezela, *Oyar-agirre* orrek aldamenean antxe zeukan aspaldi batean baztar bat *Miravalles* zeritzana, gero ura ere *Ma-*



*ravillos* biurtua (Euskeraz *Oyar-agirre*, erderaz *Miravalles*). Dana dala, *Agerre* edo *Agirre* beti ere «ikuspegi», ots, *observatorio*, *guardia* izan dala.

• • •

Etimologia onek beste gauza batera garamatzi orain. Guk uste degunez, Ermita au, *Templarioen* edo olakoren batzuen bizi-leku izan zala aspaldi-aspaldi batean. *Templario* ayek, Jerusalemgo pelegrinoen zaitzalle izaten bait-ziran; eta beti ere «Salbatore» izenaren oso zalak.

Eta «Salbatore» bezela, baita Oyartzun'go *Santispiritus* ere, pelegrinoen gaxotegi zan.

Nola-nai dala, ez izenez bakarrik, Arkeologiaz ere, gure Ermita au oso zaharra zan. Ermitako Aldarea, alabastrozko aldare aberats-aberatsa —gotikoa— zan. Oraindikan, antxe daude aldare arren pusketa batzuek Donostia'ko San Telmo Museoa. Eta beste pusketa bat (Andre Maria'ren buru gotiko bat, alabastrozkoa bera ere) Gazteiz'ko Museo Diocesano'an. Eta, aditzea degunez, Kalbario bat (Jesus Gurutzean, eta Andre Maria ta San Juan, bi aldamenetan) Londres'ko beste Museoren batean. Dana-dala, puska zahar-askoak guztiak. Gerratean Ermita suntsitu zanean, lurrean, arri-tarteanda, gelditutakoak, eta norbaitek jaso-ta gero banatuak.

• • •

Lekuari begira jarrita, berriz, oso leku egokia izango bait-zan *Agerre*-inguru ori denbora batean ikus-leku edo *cuervo de guardia* bat ipintzeko, Prantzi-aldetik zetorren bidea zaitzeko ta babesteko. Bidea, edo obeto bideak. Bi bait-ziran, erromes-zebiltzanak ekartzen zituzten bideak inguru ontan: bata Gaintzurizketan barrena Lezo'ra jexten zana; eta bestea, Oyartzun'en barrena Aranguren'en zear Errenteria'ko Konbentu-gañera igotzen zana, andik aurrera, bakoitza bere bidetik, Urumea igarotzera Donostia'n edo Ernani'n eldu zedin.

• • •

Gure idaz-lan onen apaingarri bezela dakarkigun Gurutze Santuaren inguruan ere, ba'degu zerbait esan-bearrik.

Gurutze au ere, ageri dan bezela, gotikoa da. Anatomia guztia, alaxe du. Estilizatua. Aurpegian eriotz paketsua; parra-murriz pixka ezpañetan, ots, *sonrisa cadavérica* esan oi-dana.

Gurutze Santu ori, denbora batean, Salbatore'n egoten zan urte guztian; eta Ostegun Santuz Oyartzun'go Elizara eraman oi-zuten; eta remalleak, Erriko Agintariak eta Apaizak izaten ziran; eta berak baita, Ostiral Santuz Prozesioan ibilli ondoren, berriz ere Salbatore'ra biurtzen zutenak. Orain ez dakit Ostiral Santuz Prozesioan ibiltzen dan. Guk beti ala ezagutu izan degu.

Eta aizkenik, gauza bat du Gurutze onek beste iñun ikusten ez dana: Gurutzearen zearkako egurraren gañean daramakian erromero-adar-illara: bate-tik bestera, dana erromero-adarrez korroatua. Beste iñun ez bait-det ikusi olakorik. Ondo eutsi bearreko oitura, beraz.

• • •

Orra, bada, zer zuan jakingarri Salbatore'ko Ermita izandakoak.